

## Zer da PISA programa?

# PISA

**P**rogramme for **I**nternational **S**tudent **A**ssessment  
(Ikasleen nazioarteko ebaluaziorako programa)

ELGAREN (Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) proiektua da.



Hezkuntzari dagokionez, munduko nazioarteko ebaluaziorik handiena da.

PISAREN azken helburua herrialde parte-hartzaile guztiei ebaluazioaren emaitzak erabiltzen laguntzea da, betiere, irakaskuntza eta ikasleen lorpenak hobetzeko.

Hiru urtez behin egiten da.

## Nork hartzen du parte?



**15 urteko** ikasleen lagin batek  
(2002ko urtarrilak 1 eta abenduak 31 artean jaiotako ikasleak)

### Zergatik?

Herrialde gehienetan mutil eta neska gehienek derrigorrezko eskolatzea amaitzen duten eta derrigorrezkoaren ondorengo hezkuntza hasi edo lan-bizitzan hasten diren adina delako.

### Zuzendaritza-taldeak eta irakasleak

Zuzendaritza-taldeak eta irakasleak irakaskuntza-ikaskuntza testuinguruari buruzko informazioa izatea ahalbidetzen dute, baita ikasleen errendimenduan eragiten duten faktoreak ere.



### Lagina

Euskadin gutxi gorabehera 138 ikastetxetako 5.583 ikasle inguruk hartuko dute parte.

Ikastetxe bakoitzean gehienez 53 ikasleko lagina aukeratu da.

# Zergatik da garrantzitsua PISAn parte hartzea?



Ikaslearen konpetentzia maila eta bilakaera ezagutzeko aukera ematen duelako, gainerako herrialdeekin alderatu eta ikaslearen errendimendu maila denboran zehar kokatzea ahalbidetzen duelako, bai nazio mailan, bai nazioarte mailan.


Hezkuntza-sistemak alderatzeko aukera eskaintzen du. Alderaketaren bidez, nazioarte mailan koka daiteke, praktikarik onenak identifikatu eta beste herrialde parte-hartzaileetako hezkuntza-sistemen funtzionamendutik ikas daiteke.

Hezkuntza-sistema arrakastatsuen profilak identifika daitezke; horrela, besteak hobetzeko eredu gisa erabil daitezke.



Gobernuei beren politiketan pentsatu eta berriak diseinatzea ahalbidetzen die.

# Zer herrialdek hartuko dute parte PISA 2018an?



PISA 2018an munduko 80 herrialdek hartuko dute parte: 35 ELGAko kideak dira.

- ELGAko kideak diren herrialdeak
- ELGAko kideak ez diren herrialdeak
- Parte-hartzaileak ez diren herrialdeak

## Zer ebaluatzen du?

### KONPETENTZIAK

Bizitzako egoera errealetan ezagutza aplikatzeko gaitasuna.



PISAk hiru kompetentzia nagusi ebaluatzen ditu:

Irakurketarako kompetentzia  
Matematikarako kompetentzia  
Zientzietarako kompetentzia



PISAko edizio bakoitzean, hiru kompetentzietako bat beste biak baino sakonago ebaluatzen da. Aurten, irakurketarako kompetentzia izango da.

**Gainera**, ziklo batzuetan, kompetentzia berritzaile bat arakatzen da; esate baterako, problemen ebazpena, finantzarako kompetentzia, kompetentzia orokorra eta abar.

## Zer ebaluatuko da PISA 2018an?

2018ko aplikazioan, ikasleek proba kognitiboa egingo dute eta zenbait galdetegiri erantzun beharko diote. Era berean, ikastetxeko zuzendaritzak eta irakasleen lagin batek galdetegi batzuei erantzun beharko diote.

### Ikasleak

#### Irakurketarako kompetentzia\*

Matematikarako kompetentzia  
Zientzietarako kompetentzia  
Finantzarako kompetentzia  
Kompetentzia orokorra

Ikasleentzako galdera-sorta  
Finantza-gaietako galdera-sorta  
IKTen ezagutzari buruzko galdera-sorta  
Hezkuntza-ibilbideari buruzko galdera-sorta  
Ongizateari buruzko galdera-sorta

\* PISA 2018an, irakurketarako kompetentzia izango da sakonago ebaluatuko dena (irakurmena).

### Zuzendaritza-taldea

| Ikastetxearen galdera-sorta

### Hizkuntza eta Literaturako irakasleak

| Irakurketako irakasleen galdera-sorta

### Hizkuntza eta Literatura ematen ez duten irakasleak

| Irakasleen galdera-sorta orokorra

# Nola ebaluatuko da PISA 2018an?



PISA 2018an, proba kognitiboak eta galdetegiak ordenagailu bidez egingo dira.

Aplikazioaz arduratzen den enpresak eramango du ikastetxeetara beharrezko material informatikoa.

Probak egiteko ez da beharrezkoa Interneteko konexioa.

## Zenbat iraungo du probak?

Proba kognitiboak 2 ordu iraungo du, bi saiotan banatuta. Bien artean 5 minutuko atseden laburra izango da.

Ondoren, ikasleek gutxi gorabehera ordubete izango dute galdetegiari erantzuteko.



## Noiz aplikatuko da PISA 2018?

2018

ENERO	FEBRERO	MARZO	ABRIL
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
MAYO	JUNIO	JULIO	AGOSTO
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
SEPTIEMBRE	OCTUBRE	NOVIEMBRE	DICIEMBRE
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

PISA 2018ko apirilaren 16tik maiatzaren 4ra aplikatuko da.

## Noiz jakingo dira emaitzak?

ELGak PISA 2018 ebaluazioko datuak 2019ko abenduaren 6an argitaratuko ditu.

Euskadin, ISEI-IVEIk ikastetxe parte-hartzaile bakoitzarentzako txosten bat egingo du lortutako emaitzekin. 2020ko otsaila aldera jasoko dute.

Azkenik, ISEI-IVEIk Euskadiko emaitzen txostena 2020ko otsaila aldera argitaratuko du.